

Eranskina

Aldaketak egitura demografikoan

Euskadiko guztizko biztanleriak 2.178.339 lagun biltzen zituen 2010ean (EIN, 2010). 80.284 biztanleko gorakada adierazten du horrek azken 4 urteetan, 1996-2010 aldian. Euskadin 417.659 lagun daude 65 urtekoak edo hortik gorakoak, eta 95.698 pertsonako gorakada izan du 1996ko zifrak. Gauzak horrela, 65 urtetik gorako kolektiboa Euskadiko biztanleriaren % 19,2 da gaur egun eta portzentajezko bi puntutan baino gehiagotan gainditzen du Espainiako adineko pertsonen biztanleriari buruzko zifra (% 16.9). 80 urteko eta hortik gorako pertsonak guztizko biztanleriaren % 5,9 dira eta adineko pertsonen % 29,3. Zifra horrek ere Espainiako batez bestekoa gainditzen du.


EAEko biztanleria adinaren, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera, 2010

	Pertsona milakoak					Portzentaje horizontalak				
	Guztira	50-64	65-79	80 eta +	65 eta +	Guztira	50-64	65-79	80 eta +	65 eta +
Bisexuak										
Espainia guztira	47.021.031	8.178.138	5.627.958	2.303.206	7.931.164	100,0	17,4	12,0	4,9	16,9
Euskadi	2.178.339	433.235	295.326	122.330	417.656	100,0	19,9	13,6	5,6	19,2
Araba	317.352	61.823	39.466	15.515	54.981	100,0	19,5	12,4	4,9	17,3
Gipuzkoa	707.263	141.049	94.894	39.426	134.320	100,0	19,9	13,4	5,6	19,0
Bizkaia	1.153.724	230.363	160.966	67.389	228.355	100,0	20,0	14,0	5,8	19,8
Gizonezkoak										
Espainia	23.226.185	4.019.225	2.555.443	817.988	3.373.431	100,0	17,3	11,0	3,5	14,5
Euskadi	1.064.708	212.136	133.466	41.097	174.563	100,0	19,9	12,5	3,9	16,4
Araba	158.322	30.740	18.879	5.472	24.351	100,0	19,4	11,9	3,5	15,4
Gipuzkoa	347.027	69.653	43.050	12.920	55.970	100,0	20,1	12,4	3,7	16,1
Bizkaia	559.359	111.743	71.537	22.705	94.242	100,0	20,0	12,8	4,1	16,8
Emakumezkoak										
Espainia guztira	23.794.846	4.158.913	3.072.515	1.485.218	4.557.733	100,0	17,5	12,9	6,2	19,2
Euskadi	1.113.631	221.099	161.860	81.233	243.093	100,0	19,9	14,5	7,3	21,8
Araba	159.030	31.083	20.587	10.043	30.630	100,0	19,5	12,9	6,3	19,3
Gipuzkoa	360.236	71.396	51.844	26.506	78.350	100,0	19,8	14,4	7,4	21,7
Bizkaia	594.365	118.620	89.429	44.684	134.113	100,0	20,0	15,0	7,5	22,6

Iturria: EIN: INEBASE: Biztanleen udal-errola, 2010.

Biztanleriari buruzko proiektzioak zahartze horren portzentajezko hazkunde iragartzen dute, egungoa ia bikoiztuko duena. Eustaten proiektzioaren arabera 2050ean 554.765 lagunek gainditua izango dute 65 urteko atalasea. Guztizko biztanleriaren % 38,8 izango da orduan biztanleria hori. Etorkizuneko panorama demografikoak gizarte zahartua aurkezten du, non Euskadiko hamar pertsonatik lau adineko pertsonak izango diren.

EAEko 65 urteko eta hortik gorako, eta 80 urtetik eta hortik gorako biztanleriaren proiektzioak, 2010-2050



Iturria: Eustat. Biztanleriaren proiektzioak.

Aldaketak familia-egituran

Adineko pertsonen arteko bizikidetzaren modu ohikoena bikote-bizitza da (% 37,4), atzetik oso hurbil zenbait belaunaldik osaturiko etxeen unitateak dituela, adineko pertsonak familiaburu izanik (% 30,5) eta pertsona bakarreko etxeen unitateak (% 22,3).

1993an adineko pertsonen % 15,2k etxebizitza partekatzen zuen seme-alabekin edota ilobekin haien egoitzetan, eta 2010ean, aldiz, % 3,6ra jaitsi da zifra hori. Familia bakarreko etxeen unitateak 1993ko % 16,5etik % 24,8ra egin dute gora, Europako joerari jarraiki.

Aldaketak osasunean

Pertsona nagusien bizi-baldintzei buruzko inkestaren datuen arabera, adineko pertsonen % 15,9 mendetasun-egoeran dago autonomia-erkidegoan eta % 26,6k desgaitasuna du. Zifra absolututan, 62.254 adineko pertsona daude mendetasun-egoeran eta 104.275 desgaitasunarekin.